

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure negozioia aurrera eramateko egingo ditugun jarduerak honakoak izango dira:

- Ekoizpena; gure kasuan komunitateko ura berrerabilgarria egingo duen sistema ezartzeko prozesua.
- Etxeetarako zerbitzua; gure sistemak etxeetara garraiatzeko beharrezkoa izango zaigu.
- Etxeetan sistemak ezartzeko prozesua; gure sistemak ezartzeko.
- Arazoak konpontzea; zerbitzuei esker bezeroek izan ditzaketan matxurak edo arazoak konponduko ditugu.
- Plataforma edo sareko jarduerak; gure web-orriak funtziona dezan egin beharreko aldaketak egitea, bezeroek enpresan egiten diren berrikuntza guztien berri izateko.
- Etxeak eraikitzen dituzten konpainiekin asoziazioak, etxea eraikitzen hasten direnean, haiekin jarriko gara harremanetan gure produktua etxe berrietan instalatzeko.
- Komunak egiten dituzten konpainiekin asoziazioak, kasu honetan, komuna instalatu aurretik beraien bezeroari gure produktuaren berri emateko eta honen abantailak azaltzeko.
- Orokorrean gu arduratuko garen arren, garraio enpresa batekin asoziazioa egingo dugu, guretzat garraiatzeko ezinezkoak diren lehengai eta materialak gure tailerrera ekartzeko eta ondoren, gure produktua leku batetik bestera mugitzeko.
- Eraikuntza ekologikoak egiten dituztenekin ere mantenduko dugu kontaktua, gure produktuaren berri izan dezaten, horrela haien eraikinak geroz eta ekologikoago eta jasangarriagoak egiteko.
- Aldizkari ekologiko eta teknologikoekin bat egingo dugu, gure produktua ahalik eta azkarren gizartean zabaltzeko. Honela, etekinak izaten azkarrago hasiko garelako.
- Sare sozialak erabiliko ditugu gure produktua ezagutarazteko.

